

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza <sup>info</sup>

Asteartea, 2012ko urriaren 2a. IX. urtea. 2.408. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)

## Tolosako EAJK dio aurreko legealdian ere aurre egin ziotela krisiari

Udal gobernuak errua besteei botatzen diola esan dute; «harrituta» daude zailtasun ekonomikoen inguruan esandakoekin ◦ 4



Jokin Azkue, Ion Aldazabal eta Joselu Andueza Tolosako Usabalen. I.U.



JONE AMONARRIZ

→ **Hiru azoka berezi, aukeran.** Herenegungoa azoka berezien eguna izan zen. Asteasun (irudian), Alegian eta Bidegoianen egin zituzten, eta guztietan jende asko ibili zela diote antolatzaileek. Asteasun espero baino jende gehiago gerturatu zen herrira eta postu batzuetan produktuak agortu zitzaizkien goizean. Bidegoianen kultur asteko azken ekitaldia izan zen azokarena. ◦ 5

## Anoetako Egoitz Luisa izan da Bedaioko Zaldi Raid probako azkarrena

Artubi elkarteko kideak gustura daude Bedaio eta ingurua ezagutzeko asmoz antolatutako herri lasterketak emandakoarekin ◦ 7



35 kilometroko itzulia egin zuten parte hartzaileek. JONE AMONARRIZ

## Lehen mailan aritzeko txartela eskuratu du Jon Irazu aizkolariak

Bigarren mailako txapelketa irabazi du zizurkildarrak; bestalde, Urrutia harri jasotzaileak bigarren egin du Nafarroako txapelketan ◦ 7

# Liztor asiarra



**Bioaniztasunetik**  
Jon Ander Galarraga  
Biologoa

**N**ola ez dugu bada zutabe xume honetan, euskal biztanleriaren %90a aztoratu duen intsektu honetaz hitz egingo? Nola ez dugu bada ekoizturaren txoko xume honetan, honelako habiatzarrak egiten dituen liztor handiaz hitz egingo?

Asiatik ontziren baten barruan iritsi omen zen bisitari hau Frantzia ingurura. Liztor asiarrak hau (*Vespa velutina*) oso ongi egokitu zen Frantziako klimara, izan ere, bere jatorria, India iparraldea eta Txina omen da eta bertako klima, Frantziakoaren nahiko antzekoa omen da. Beraz, klima egokia, harrapari ezagunik ezta nahiko janaria edukita... nor ez da gustura biziko bertan? Eta gustura bada-gu Frantzian, nola ez da bada gure Euskal Herri maiteko paisaiaz eta gastronomiaz gozatzera etorriko?

Eta hementxe dugu, beste espezie inbaditzaile bat gure etxeetan eta erlauntzetan. Jada nire irakurleek jakingo dutenez, liztor asiarrak, liztor guztiak bezala, harrapari dela eta bere biktimen artean Europan ezitarrak erabiltzen den erle europarra duela (*Apis mellifera*).

Gure erle europarrak badu bertakoa den harrapari bat: liztortzarra (*Vespa crabo*), baina dirudenez, liztortzarra ez da Asiako liztortzara bezain erasokorra erlauntzekin. Esan beharrik ez da Asiako liztortzarak Frantzian eragin duen kalte berdina eragingo duela gure erlauntzetan eta erlezainen ekoizpenean.

Kontu hauek atzokoak direla dirudien arren, Frantzian liztor asiarraren presentziaren lehen datuak 2005ean eman ziren. 2012an iritsi zen liztor hau gurera, zazpi urte beranduago. Zer egin da gurean liztor honen etorrera ekiditeko? Ezer gutxi. Zergatik? Izango duen eragin ekonomiko orokorra ez delako izango oso handia. Nonbait, euskal erlezain

batzuei kalte ekonomiko larri bat eragitea ez da «larritasun handiko arazoa». Kasualitatez, liztor asiarrak, zenbait gobernuren proiektu handiren bateko materialak kaltetzen hasiko bazen...

Agian zentimetro gutxiko zomorro bat da, eskukada batekin akabatzeko modukoa. Ziurrenik suhiltzaileek urtean ehunka liztor habi txikituko dituzte eta telebistan agertuko dira berau erretzen. Ziur nago, erlezainei kalte ordain batzuen truke konbentzitu ahalko zaiela liztor hau ez dela «oso kaltegarria beraien jarduerara ekonomikorako».

Baina zomorro hau bizidun bat da eta bizidunek ez dute OFF botoirik, ez dakigu nolako joera izango duten. Agian ez du berebiziko kalterik egingo, edo agian bai. Liztor honek, intsektu polinizatzaileak jaten ditu, eta polinizatzaileak, gure egunero jaten ditugun landareen produktua jaitzi daiteke. Ziur aski gure hegazti intsektujale batek, adibidez okil beltzak, bere dietan sartuko du eta neurrian mantenduko du liztor kopurura, baina azken urteetako hegazti intsektu jaleen egoera ere ez da oso ona gurean. Zergatik ote da?

Aurrez, intsektu honen zentzuzko ikerketak burutu baziren, Frantziatik zetorren alarma soinuari kasu egin bazitzaion eta diru kopuru ez oso handi bat inbertitu baldin bagenuen gaia ikeretzen, ziur nago, euskal biologoen kalitatea ikusita, liztor asiarrak eta antzeko inbaditzaileak ezabatuko euskal neurriren bat lortuko genuela, gurean liztor asiarraren arazoa ekidinez eta frantziarrei neurria ederki salduz.

Baina orain berandu da, ea zortea dugun eta liztor honek ez duen kalte handiegirik egiten. Ez naute arduratzen telebistan erretzen dituzten habia horiek, gehiago arduratzen naute, aurkitzen ez diren eta gure basoen sakonean ugaltzen ari diren milaka habiek.

Eta liztor asiarrak akabatzeko *herriar komandoak* sortu aurretik, ez dezagun liztor asiarrak bertako liztortzarekin nahastu. Tamen antzekoak dira, baina, gure liztortzak bizkar guztiak zehar ditu marra hori-beltzak, eta liztor asiarrak bizkar beltza du, marra hori bakarti batekin ipurdiaren amaieran. Gainera hanka marroiak ditu, amaieran horiztak, eta hegalak, berriz, oso ilunak ditu.

## Iragarki laburrak

### LANA

#### ■ Etxeko eta zainketa lanak.

Etxeko lanak egin, umeak edota edadeko pertsonak zaintzeko,

emakume batek bere burua eskaintzen du. Interesatuak, deitu 696 409773 telefono zenbakira.

## Irudia o Irura



## AGUR ESAN DIETE SANMIEL JAIEI

Bi asteburuz ospatu dituzte irurarrak sanmielak eta hainbat ekitaldi izan dituzte. Horietako bat larunbatean egindako areto triatlói lehia izan zen, anoetarren aurka, herriko plazan. Bi aldiz irabazi ondoren, hirugarrenean galdu egin zuten irura-

rrek. Nesketan irurarrak azkarragoak izan ziren eta 13 segundoko tartea atera zuten, baina mutiletan abantaila horri buelta eman zioten anoetarrek, orokorrean minutu bat eta sei segundoko tartea lortuz. IGL

## Irudia o Aldaba



## FESTA GIROA ALDABA AUZOAN

Mikel Goianguaren festak ospatu dituzte Tolosako Aldaba auzoan pasa berri den asteburuan. Giro ederra izan dute, besteak beste, larunbatean

egindako hamaiketakoan eta ondoren jokaturako toka txapelketan. Auzoko hurrengo festa, Uganekoa, urriaren 20an izango da. IGL

## Irudia o Tolosa



## ALLIRI AUZOAN FESTA, BIGARREN URTEZ

Tolosako Alliri auzoan bigarren urtez ospatu dute festa eguna. Larunbatean izan zen, eta hainbat ekitaldi antolatuta zituzten. Bazkarian ehundik gora

auzotar elkartu ziren, bertakoek prestatutako paela jateko. Goizean eguraldi kaxkara egin bazuen ere, giro ederrean aritu ziren alliritarrak. IGL

**Irudia** ◊ **Asteasu**



**ESPERO BAINO JENDE GEHIAGO**

Asteasuko Udala «oso gustura» azaldu da azoka bereziarekin, espero baino jende gehiago izan baitzen bertan. Udaletik azaldu dutenez, arratsaldean bost edo sei postu ez ziren ireki, eramandako produktu guztiak saldu baitzituzten goizean. Udalak jarritako tabernan ere aurreikusitako janari kopurua eskas gelditu zen. Bestalde, Itziar Zeberio, Iker Elizegi eta Asier Mendizabal izan ziren lehen hiru sariak jaso zituztenak herritarren arteko arroz esne lehiaketan. JONE AMONARRIZ

**Irudia** ◊ **Bidegoian**



**KULTUR ASTEAK, HARRERA ONA**

Bidegoiango kultur asteako ekitaldietan jende ugari hartu duela nabarmendu du udalak, eta «oso gustura» azaldu da ekitaldiek izandako harrerarengatik. Larunbatean, besteak beste, haurrek murala margotu zuten frontoiaren kanpoko hormetan. Azken ekitaldia Goiatzen egindako azoka berezia izan zen. Bertan, taloak egiteko irina bukatu egin zen, bertara joan zen jende andanaren seinale. Azokan, herri bertako baserrien produktuak izan ziren salgai. I.G.L.

**Irudia** ◊



**GUDARI EGUNA, ESKUALDEAN**

Txiki, Otaegi eta beste hiru antifrankista hil zituztela 37 urte bete ziren irailaren 27an. Hori dela eta, Gudari Eguna ospatu zuten, eta eskualdean «Euskal Herriarengatik bere bizia eman dutenak» oroitu zituzten ekitaldi baten bidez. HITZA

**Irudia** ◊ **Alegia**



**AZOKA BEREZIA, EGONKORTZEN**

Aurtengo Alegiako azoka berezian 25 postu baino gehiago izan dira, inoiz baino gehiago. Alegiako Udalak azaldu duenez, azoka egonkortzen ari da, igandean jende dezente izan zen, eta izandako salerosketa kopurua ere nabarmendu du. «Gustura» azaldu da, beraz, udala, azokan izandako giroarekin. JONE AMONARRIZ

**Irudia** ◊ **Tolosa**



**FESTA ETA ALDARRIKAPENA**

Tolosaldeko Gaiinditzen elkarteak antolatuta, eta Euskal Gorrak koordinakundearen eta Fevapasen laguntzarekin, Gorren Nazioarteko Eguna ospatu zuten Tolosan, larunbatean. Gorrak eta entzuten duten pertsonak osatutako estropada, hamaiketako, haurrentzako jolasak, dantza ikuskizuna eta antzerkia izan zituzten. Aldarrikapenerako unea ere izan zuten: Euskal Gorrak koordinakundeak manifestua irakurri zuen (bideoa [tolosa.hitza.info](http://tolosa.hitza.info) helbidean) gorrentzako eskubideak eskatu. I.G.L.



**TOLOSALDEA**  
GOIMAILAKO L. H. INSTITUTUA





**LANERAKO PRESTAKUNTZA** (Langile eta langabeentzat) **DOAKO IKASTAROAK**

IKASTAROA (GUSTUETAN POKATIBAK)	ORAIN	MAHAI	AGURTIA
Ikastaro orokorra (Wendeez, bitarteko hizkera, lehen) / lehen eta jende orokorra (Euzkeraz)	99	2012-09-03	Astelehenetik ostegunera 18:00 - 21:00
Azkeneko ikasturteko ikastaro orokorra (Wendeez)	99	2012-11-08	
Frantses hizkuntza ikasteko proiektuak - lehenengo (Euzkeraz)	99	2012-09-04	
Frantses hizkuntza ikasteko proiektuak - bigarrena (Euzkeraz)	99	2012-11-09	
Frantses hizkuntza ikasteko proiektuak - hirugarrena (Euzkeraz)	99	2012-11-10	
Frantses hizkuntza ikasteko proiektuak - laugarrena (Euzkeraz)	99	2012-11-11	
Frantses hizkuntza ikasteko proiektuak - bostgarrena (Euzkeraz)	99	2012-11-12	
Frantses hizkuntza ikasteko proiektuak - seigarrena (Euzkeraz)	99	2012-11-13	
Frantses hizkuntza ikasteko proiektuak - zazugarrena (Euzkeraz)	99	2012-11-14	
Frantses hizkuntza ikasteko proiektuak - zortzigarrena (Euzkeraz)	99	2012-11-15	
Frantses hizkuntza ikasteko proiektuak - bederregigarrena (Euzkeraz)	99	2012-11-16	
Frantses hizkuntza ikasteko proiektuak - bederahirugarrena (Euzkeraz)	99	2012-11-17	




Martxoaren 15etik martxoaren 16ra, 2012ko 11:00 ar.  
Berriz hitza: 11 - 2012ko 11:00 ar.  
E-mail: [hitza@tolosaldea.com](mailto:hitza@tolosaldea.com)  
Web: [www.tolosaldea.com](http://www.tolosaldea.com)

**ESKAINZA ETA ESKAERAK**  
[www.tolosaldea.com](http://www.tolosaldea.com)





Usabal kiroldegian egin zuten agerraldia, EAJ-PNVko udal taldeko kideek. I. URKIZU

## Udal gobernua «bere ezintasuna estali nahian» dabilela dio EAJko taldeak

2013ko aurrekontuak elkarlanean osatu nahi dituzte jeltzaleek, eta proposamenak egin dituzten hainbat arlotan

netatik ateratzeko, guztion artean aztertuz; honetarako, proposamenak egiteko prest gaude», azaldu zuen Jokin Azkuek.

«**Harrituta**» udal gobernuarekin Jokin Azkuek, Tolosako udal gobernuko kideek udalaren zailtasun ekonomikoaren inguruan esandakoekin «harrituta» geratu zirela azaldu zuen; Bilduk eta Aralarrek «errua besteei bota» dietela uste dute jeltzaleek.

Bide honetan, Ibai Iriartek, Ina-

**Bildu-Aralarrek «proiektuak geratu» dituela gaitzetsi du EAJ taldeak**

ki Irazabalbeitiak eta Lore Agirrek aipatutako ondare ekonomikoa ere hizpide izan zuen EAJk, eta «min eman» diela nabarmendu zuten agerraldian. Izan ere, jeltzaleek, «gaur egun Bilduk kudeatzen dituen diru laguntza guztiak, aurreko legealdian lortutakoak» direla diote, eta inbertsioak diru laguntza horiekin burutzen dituztela.

Gainera, 2003 eta 2011 bitartean

udalaren zorra 30 aldiz hazi zela aipatu izana ere gaitzetsi zuten EAJko zinegotziek: «Ez dute esaten, bitarte horretan 24 milioiko kostua izan zuen kiroldegia

eraiki zenik, edo beste hainbat proiektu gauzatu zirenik».

**Proposamenak arloz arlo**  
Datorren urterako aurrekontuak egiteko, arloz arloko proposamenak ere egin zituzten EAJko kideek.

Udal etxebizitza planarekin hasi ziren, eta Berazubín, Kondeaneko aldapan nahiz Euskal Herria plazan, babes ofizialeko nahiz gazteentzako etxebizitzak eraikitzea proposatu zuten.

Hondakinen kudeaketaren gaia ere hizpide izan zuten, eta bosgarren edukiontzia-aren alde azaltzeaz gain, garbiketaren ordenantza martxan jartzea eskatu zuten, «herria gero eta zikinago baitago».

Gizarte politikan, berriz, «integrazioa eta berdintasuna» sustatzeko beharra azpimarratu zuten, eta bizikidetzari dagokionez, alderdi politiko guztiek adostutako testu bat onartzearen beharra nabarmendu zuten.

Turismoaren eta gastronomiaren esparruan, «dagoena mantendu eta handitu» egin behar dela uste dute, eta, azkenik, gazte ekintzaileentzat emlegua sortzeko belaunaldien arteko foro bat sortzea proposatu zuten alderdiko kideek.

• [tolosa@hitza.info](mailto:tolosa@hitza.info)

## Haurren zaintzan trebatzeko aukera Cristobal Gutierrezekin

I. Urkizu

Altzoan elkarrekin, Cristobal Gutierrezekin formazio saioetan parte hartzeko aukera eskainiko du, pasa den irailaren 18ko hitzaldiaren arrakasta ikusita.

Altzoaneko arduradunek bi aukera eskainiko dituzte. Batetik, hileroko formazioa legoke, hila-betero asteburu batean berarekin elkartuz; 100 euro ordaindu beharko litzateke astebururo. Bestalde, hilean behineko kontsulta pertsonala ere aukeretakoa bat litzateke.

Eskualdeko jendearen interesa zein den jakin nahi du Altzoan elkarrekin; interesa duen edonork, beraz, [gurealtzoan@gmail.com](mailto:gurealtzoan@gmail.com) helbidera idatzi beharko du, urriaren 8a baino lehen, bi aukeretakoa bat aukeratzuz.

## Tolosako Udalak «irmo» salatu du joan den asteko bortxaketa saiakera

I. Urkizu

Pasa den irailaren 23ko gauerdian Iruratik Tolosara bideak gertatutako bortxaketa saiakeraren aurrean, «gaitzespen eta salaketa irmoena» helarazi nahi die herritar guztiei Tolosako Udalak; halaber, elkartasuna azaldu diete eraso jasan zuen emakumeari nahiz haren senideei.

Genero Biolentziaren Aurkako Protokoloarekin lanean jarraituko dutela nabarmendu dute, eta emakume erasotuari babesa eta laguntza eskaini nahi diotela.

Bide beretik, indarkeria matxistaren eta parekidetasunaren esparruan prebentzioaren beharra nabarmendu du udalak.

## Irudia >



## URKULLU ESKUALDEAN

Pasa den ostiralean, EAJko lehendakariagaia Iñigo Urkullu, Abaltzisketan eta Tolosan izan zen. Markel Olano eta Bakartxo Tejeriaren batera, Tolosaldeko hainbat herri txikitako ordezkariak elkartzu zuten, Abaltzisketan, beren beharrez aritzeko. Tolosan, berriz, Jokin Bildarratz alkate ohia-ekin elkartzu zen. HITZA



sarrerak

HITZAK harpidedunentzat **2 sarrera** ditu



Urriak 7 • Igandea  
18:00etan  
Donostiako Ilunben

**LAGUN ARO GBC**  
Asefa Estudiantes  
saskibaloï partida

Zozketan parte hartzeko deitu osteguna 14:30ak baino lehen **943 65 56 95** telefono zenbakira.







**Kutxabankek proba guztiak gainditu ditu bere kudeaketa sendo, zuhur eta eraginkorrari esker. Gure bezeroen aurrezkiak kudeatzen emandako 100 urte baino gehiagoko esperientzia badabil.**


# kutxabank badabil.



2012ko irailak 28.  
Kutxabankek Finantza Egonkortasunerako Europako Fondoaren azterketa gainditu du.

 **CajaSur**

 **Vital**

 **kutxa**

**bbk<sup>2</sup>**

**Kirolak**

↓ **Kirol emaitzak**

**PILOTA**

**LEHEN MAILAKO LAU TERDIKO TXAPELKETA**

**Olaetxea-Arretxe** 18-22

**NITRO TXAPELKETAREN FINALA**

**Bengoetxea VI-Beroiz** 22

**Titin III-Merino II** 21

**GIPUZKOAKO TXAPELKETA Kadeteak**

**Peña-Aburuza (A. Saiaz)** 22

**Azkoitia** 1

**Santxez-Mendia (A. Saiaz)** 22

**Zazpi Iturri 2** 18

**Eloia-Lezea (A. Saiaz)** 1

**Antiguo** 22

**Jubenilak**

**Ormazabal (A. Saiaz)** 22

**Intza 2** 2

**Mugika-Imaz (A. Saiaz)** 22

**Oiarpe 2** 5

**Etxeberría-Alberdi (A-S)** 22

**Allerru2** 11

**Urdapilleta-Otaegi (A-S)** 22

**Bergara** 17

**Seniorrak**

**Elustondo (A. Saiaz)** 22

**Gazteleku** 1

**Ariztimuño-Jauregi (A-S)** 22

**Eple** 13

**Labaka-Galarraga (A-S)** 22

**Intxurre** 2

**Urbietta-Labaka (A-S)** 22

**Eple** 20

**Mujika-Biain (A-S)** 22

**Antiguo** 4

**Quina-Esnaola (A-S)** 15

**Intxurre** 22

**Artola-Arratibel (A-S)** 22

**Soraluze** 1

**Urbietta-Telletxea (A-S)** 22

**Ilunpe** 15

**ARETO FUTBOLA**

**HIRUGARREN MAILA**

**2. jardunaldia**

**Ibarra-Mallabia** 10-3

**Gora CD-Egintza T. Lakunza** 4-5

**Aurrera Vitoria-Hirukide** 3-7

**Zarautz-Laskorain** 5-2

**Sailkapena**

1. Soloarte 6p

2. Ibarra 6p

3. Goierrri 6p

5. Tolosala Hirukide 4p

7. Egintza T. Lakunza 4p

13. Laskorain 0p

**Hurrengo jardunaldia**

**Soloarte-Ibarra**

**Egintza T. Lakunza-Santurtzi**

**Hirukide-Zarautz**

**Laskorain-Gora CD**

**FUTBOLA**

**ERREGIONAL OHOREZKOA**

**3. jardunaldia**

**Tolosa CF-Lagun Onak** 2-0

**Sailkapena**

1. Hernani 9p

2. Aretxabaleta 7p

3. Hondarrabia 6p

7. Tolosa 6p

**HURRENGO JARDUNALDIA**

**Ostadar-Tolosa**

**AIZKORA**

**NAFARROAKO LEHEN MAILAKO TXAPELKETA**

**Kanporaketa**

1. Floren Nazabal 12:35

2. Donato Larretxea 15:14

3. Jon Rekondo 16:13

4. Antonio Senosiain 16:40

5. Ander Erasun 17:13

**EUSKAL HERRIKO**

**BIGARREN MAILAKO TXAPELKETA**

**Finala**

1. Jon Irazu 19:07

2. Ander Erasun 19:55

3. Xabier Zaldúa 19:58

4. Mikel Larrañaga 20:23

5. Mugertza II.a 21:22

**HARRI JASOTZAILEAK**

**NAFARROAKO TXAPELKETA**

**Finala**

1. Unai Bertiz 6.125 kilo

2. Josetxo Urrutia 5.587kg

3. Ariztegi 5.337kg

4. Oiarbide 4.550kg

5. Igoa 4.200kg

**AUTOMOBILISMOA**

**XIV. DONOSTIA HIRIA RALLYA**

**Sailkapena**

1. Xabier Lujua-Jesus Estrada (Mitsubishi) 00:40:12.300

2. Aingeru Castro-Angel Castro (BMW) 00:40:12.500

3. Jesus Perez-Alejandro Perez (Renault Clio) 00:43:17.900

11. Markos Landa-Joseba Iturrioz (Opel Kadett) 46:22

# Partidarik irabazi gabe jarraitzen du Laskorain ikastolak

**Gorka Amatriain** Tolosa

Zarautzen jokatu zuen Laskorainek denboraldi bigarren jardunaldia. Aurreraren aurka kale egin izanak, presioa biderkatutzen zuen. Lehen zati txukuna bete zuten horitxoek, 1-0 galtzen hasi arren, Joniko eta Vazquez gazteak markagailua iraultzea lortu zuten. Erabakiorra ez, baina itxaropenez beteriko emaitzari jarraipena eman behar zitzaien.

Gauzak guztiz okertu ziren tolosarren kalterako, markagailuaren alde areagotzeko abagunak sortu ziren, baina zarautzarrak izan ziren asmatzaile, eta 2-2ko berdinketa mingarriak

arratsaldea kolore ilunez margotzen hasia zuen ordurako. Laskoraindar batek txartel gorria ikusi eta jokalaria bat gutxiagorekin Zarautzek 3-2koa egingo zuten jarraian. Atezain jokalariekin 4 minuturen faltan egindako azken ahaleginak ez zuten fruiturik eman, eta bi gol gehiago jaso ondoren, azkena txirrinaren muga, 5-2ko emaitzarekin jaitzi zen oihala.

Ezustekoa da bi jardunaldiren ondoren punturik lortu ez izana. Berandu baino lehen berpiztu behar harko dute Aitorren mutilek, sailkapenaren ohorezko postuen borrokarengandik gehiegi urrundu nahi ez izatekotan.

Datu positibo gisa, Vazquez

gazteak gorako taldearekin egiten lehen gola aipatu behar, minutu bikainak betetzen ari den gazte honek harrobiaren lan aparta islatzen du beste behingoz, eta segurua da ez dela bere azken sareratzea izango.

Datorren astean Gora CDren bisita jasoko dute ikastolakoek Usabalen. Dinamika negatibo honi amaiera emateko ordua delakoan daude taldekide guztiak, eta aste lanpetu honen jarraian lehen garaipena zenbatzeko irrikitan.

Larunbatean Zarautzen Javi ordezkaria, Aitor entrenatzailea, Endika, Telleria, Lander, Belloso, Joniko, Vazquez, Gil, Alonso, Etxebe, Ekhi eta Aratz izan ziren.

## Irudia • Zizurkil-Asteasu



## ERREPIDEAN AUTOEN BURRUNBA

XIV. Donostia Hiria Rallya korritu zen larunbatean, eta Zizurkil eta Asteasu lasterketaren lekuko izan ziren. Lujua eta Castroren arteko lehia ikusteko parada izan zen, beraz. Amaieran, Xabier Lujua

eta Jesus Estrada izan ziren azkarrenak, ehuneko gutxigatik izan bazen ere. Bigarren Castrozarrak sailkatu ziren. Markos Landa eta Joseba Iturrioz ibartarrak hamaikagarren sailkatu ziren. I.G.L.

## Irudia • Tolosa



## TOLOSA CF ESPAINIAKO TXAPELKETAN

Tolosa CF atletismo taldeko kadete neskek Espainiako Klub Txapelketa jokatu dute, eta seigarren postua eskuratu dute talde moduan. Madril Lilok 100 metroan eta Maria Mujikak 100 he-

sietan garaipenak lortu zituzten. Nerea Murua, Ane Galarza eta Aloña Lertxundik, euren probetan, bigarren postuak eskuratu zituzten. Taldekide guztiak zoriondu dituzte Tolosa CF taldeak. HITZA



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Irteera puntuan zaldunak, horien artean, Egoitz Luisa irabazlea 20 zenbakia soinean duela. JONE AMONARRIZ



Jon Irazu zizurkildarra txapela buruan duela. HITZA

## Zaldiez eta auzoaz gozatzeko parada eskaini du V. Bedaioko Zaldi Raidak

Herri lasterketan 42 partaide irten dira, eta Egoitz Luisa anoetarra izan da guztietan azkarrena

**Asier Imaz** Bedaio

V. Bedaioko Zaldi Raid probarekin oso gustura gelditu dira Artubi kultur elkarteko kideak. Bedaio eta inguruneak ezagutzeko asmoz antolatu ohi dute herri lasterketa, eta aurtengoan, emaitza bikainak lortu dituzte. Alde bateatik, 42 partaide elkartu zituztelako, eta bestetik, ikusle ugari auzo herria gertutik gertura ezagutzeko aukera izan zutelako, zaldi probaren aitzakian.

Herri lasterketa Egoitz Luisa anoetarrak irabazi zuen, nahiz eta garrantzitsua ibilbideaz eta egunaz gozatzeko zen. 35 kilometroko itzulian lokatz pixka bat zegoela esan dute antolatzaileek, bezperan euria egin baitzuen. Hala eta guztiz ere, zaparrada handirik ez zenez egon, ibilbidea



Zaldi ederrez gozatzeko aukera izan zuten ikusleek. JONE AMONARRIZ

egoera oso onean aurkitu zuten zaldunak. Parte hartzaileen artean, haurrak, gazteak eta helduak zeuden. Artubikoen esan duteenez, zazpi urteko neska bat ere atera zen bere zaldiaren gainean: «Lasterketa honekin gauza asko bultzatu nahi ditugu, Bedaio bertatik hasita. Jaso dugun erantzunarekin oso gustura gaude, ikaragarria izan da».

Igandean, eguraldia barne, dena lagun izan zutela esan daiteke, eta astelehenean umore ederrean aurkitzen ziren antolatzaileak.

Proba aurrera atera zedin, ekarpenak egin dituzten guztiak izan zituzten gogoan: «Laguntzen ibili diren guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu. Horrelako kirola eta horrelako auzoari laguntzea ez baita askotan erraza izaten, eta are gutxiago krisi gertatzen. Eurek gabe hau antolatzea ezinezkoa izango zen».

Lasterketa amaitzean, partaide eta ikusleak, hau da, nahi zuten guztiak, Bedaion bazkaldu zuten, herri auzoaz gozatzeko, eta bertako gozamenetako.

## Jon Irazuk irabazi du bigarren mailako aizkora txapelketa

Josetxo Urrutia leitzarra bigarren sailkatu da Nafarroako harri jasotzaileen lehian

**A. Imaz**

Euskal Herriko Bigarren Mailako Aizkolaria Txapelketa jokatu zen herenegun, Aizarnazabalen. Jon Irazu zizurkildarra izan zen onena, eta txapela janztearekin batera, lehen mailan aritzeko txartela irabazi zuen Irazuk. Bigarren postuan Ander Erasun sailkatu zuen, 48 segundora. Hau ere hurrengo denboraldian lehen mailan ariko da. Erakustaldi bikaina eskaini zuten finalera sailkatu ziren sei aizkolariek, eta ikusleek, 1.000 inguru, gogotik eskertu zuten Aizarnazabalen ikusia.

Nafarroako Aizkolaria Txapelketan, lehen mailakoan, kanporaketa berri bat jokatu zen Huarten igandean. Floren Nazabalek irabazi zuen lehia, eta Jon Rekondo leitzarra hirugarren sailkatu zen. Emaitza honekin, finalerako

txartela eskuratu zuen Rekondok. Final handia hilaren 7an jokatu da Etxarri Aranatzen, 13:00etatik aurrera. Leitzarrarekin batera, Nazabal, Larretxea, Senosiain eta Erasun ariko dira txapelaren lehian.

Rekondori bezala, Josetxo Urrutia leitzarrari ere lan egitea tokatu zitzaion asteburuan. Nafarroako Harri Jasotzaile Txapelketa jokatu zen larunbatean Igantzian. Urrutia bigarren sailkatu zen, Unai Bertizen atzetik. Bosgarren txapela irabazi zuen Sunbillako harri jasotzaileak, eta bigarrenari, Urrutiari hain zuzen ere, ia 500 kiloko alde atera zion.

Pilotari dagokionez, Lau t'erdiko Txapelketaren atariko partida jokatu zuen Mikel Olaetxeak larunbatean, Iker Arretxeren aurka. Partida Bartzelonan (Herrialde Katalanak) jokatu zen, eta lizartzarri ezinezkoa egin zitzaion partida irabaztean, ondorioz, txapelketatik at gelditu da. Leku eta egun berean, Oinatz Bengoetxeak Nitro Txapelketaren finala irabazi zuen, Beroizekin batera, aurkariak 21 tantotan utzita.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena**





≈ 23°  
≈ 13°

GOIZA	LAINOTUTA
ARRATSALDEA	LAINOTUTA
BEROENA	22°
HOTZENA	15°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak SM  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Eneritz Maiz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitateak:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info  
**Anoeta/Leitza:** 687 410 022. anoetaldea@hitza.info  
**Ibarralde:** 687 410 118. ibarralde@hitza.info  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info  
**Leitza/Leitza:** 687 410 118. leitza/leitza@hitza.info

**Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak:**

**BERTAKO HEDABIDEAK**



**Galtzaundi euskara taldea**



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Irura, Larraul, Leitza, Lizartza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## Agenda

### DEIALDIAK

- **Anoeta.** Urriak 14ko Euskal Jaia antolatzeko bilera, gaur, 19:00etan, udaletxean. Antolatzaileek herriko talde eta, oro har, herritar guztiei egin diete dei bileran parte hartzeko.
- **Ibarra.** Ines Bengoa ipuin kontalaria izango da gaur, 17:30ean, kultur etxean. 5 eta 8 urte arteko haurrei zuzenduta.
- **Tolosa.** *Herritarrekin* egitasmoaren barruan, Martin Garitano ahaldu nagusia izango da gaur, 19:30ean, Topic zentroan.

### ERAKUSKETAK

- **Tolosa.** Box.A elkartearen *Pornografia* eta Tolosa Gasa eta Tolargik 2013ko egutegia osatzeko erabiliko dituen argazkien erakusketa, Aranburu jau-regian.

## Farmaziak

### GAUR

- **Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1. Telefonoa: 943 67 38 49.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. Telefonoa: 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

## XVI. Argazki Lehiaketa



## ARGAZKIAK BIDALTZEKO AZKEN EGUNA

Gaur da XVI. Hitza Argazki Lehiaketan parte hartu ahal izateko argazkiak bidaltzeko azken eguna. [thargazkiak@hitza.info](mailto:thargazkiak@hitza.info) helbidera bidali behar dira irudiak, eta zortzi argazki finalistak, ostiraleko egunkarian ikusi ahal izango dira. Gaurkoan ezke-

rretik eskuinera, eta goitik behera, Oihana Caminos, Orkatx Goenaga, Idoia Ibarguren eta Ane Urkolaren argazkiak ikusi daitezke. Baina jasotako irudi guztiak [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info) webgunean ere ikusi ahal dira. O.C.-O.G.-L.I.-A.U.

## Agurrak



### Zorionak!

**Haizea Baraibar Goñi (Areso).**  
Zorionak printzesa!  
Lau muxu potolo larunbateko partez. Berrobiko aiton-amonak.



### Urte askoan!

**Unai Mendia Igerategi (Asteasu).**  
Larunbatean 5 urte bete zituen.  
Zorionak gure Potolori.  
Txokolatzeko muxuak aitatxo, amatxo eta Araiaren partez.  
Aupa osaba!



**Gipuzkoa**  
BERRIA

Herritarrekin egitasmoaren barne, eskualdeen egoeraz eta Diputazioaren asmoz jarduteko bilera irekiak. Foru Aldundiaren ordezkaritza batek hartuko du parte, Martin Garitano diputatu nagusia buru.

Arratsaldeko 19:00etan egin dugu hitzordua.

**URRIAK 2  
TOLOSA - Kultur Etxea**

**URRIAK 3  
DONOSTIA - Foru Aldundiaren Jauregia**

Aukeratu zuretzat interesgarriena den toki eta gai/taide eta zatuz etorkizunerako nahi duzun Gipuzkoa berria eraiki ahal izateko lehen aurrerapausoak ematera.

Bi gai/taide:

GIZARTE  
POLITIKA

GARAPEN  
EKONOMIKOA ETA  
FISKALITATEA